# BILBOKO UDALEAN ERAKUNDEAREN ETA SINDIKATUEN ARTEAN LORTUTAKO AKORDIOA (2004-2006)

**LEHENA.- DENBORA EREMUA.**

Akordio honen indarraldia **hiru urtekoa** da, 2004ko urtarrilaren 1etik 2006ko abenduaren 31ra.

**BIGARRENA.- 2004ko ORDAINSARIEN ERREGIMENA**

**2004AN** Bilboko Udaleko pertsonalaren **ORDAINSARIEK IZAERA OROKORRAZ % 2KO IGOERA IZANGO DUTE, 2003KO ORDAINSARIEKIKO**. Eta hori, urte honetarako hartutako konpromisoak gauzatuta eta homogeneotasuna kontuan hartuta konparatzen diren aldi bietarako, bai langilekopuruari dagokionez, bai antzinatasunari dagokionez.

Hortik aparte, jardunean ari diren eta 30/84 Legean jasotako ordainsarien erregimena aplikagarri zaien funtzionarioentzat **aparteko pagen** zenbatekoa Estatuaren Aurrekontuei buruzko Legean maila bakoitzerako jasotako **hilabeteko soldatari eta hirurtekoei eta hileko lantoki-osagarriaren % 40ri** dagokiena izango da.

**Soldaten % 1,2ko fondo gehigarria** ezarriko da eta hori ekoizkortasun-kontzeptuan aplikatuko da eta Alkatetza-udalburutzak ezarritakoaren arabera banatuko da.

# ACUERDO INSTITUCIONAL-SINDICAL DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO (2004-2006)

**PRIMERO.- ÁMBITO TEMPORAL.**

Este Acuerdo tiene una vigencia de **tres años**, desde el 1 de enero de 2004 al 31 de diciembre de 2006.

**SEGUNDO.- RÉGIMEN RETRIBUTIVO 2004**

Para el **AÑO 2004** el conjunto de las retribuciones del personal del Ayuntamiento de Bilbao **se incrementan con carácter general un 2% respecto a las del año 2003**, una vez ejecutados los compromisos del citado año, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.

Con independencia de ello, **las pagas extraordinarias** de los funcionarios en servicio activo a los que resulte de aplicación el régimen retributivo de la Ley 30/84, tendrán un importe, cada una de ellas, de una mensualidad de **sueldo y trienios y un 40% del complemento de destino** mensual que perciba el funcionario señalado para cada nivel en la Ley de Presupuestos del Estado.

Además se dotará **un fondo con un límite máximo del 1,2%** que se aplicará en concepto de productividad distribuido según lo establezca la Alcaldía-Presidencia.

**HIRUGARRENA.- ALDERDI OROKORRAK**

**1.- ZERBITZU PUBLIKOEI EUSTEA ETA HORIEK HOBETZEA:** Bilboko Udalak zerbitzu publikoei eusteko eta horiek hobetzeko borondatea eta konpromisoa adierazten du; zerbitzu publikoak nola emango dituen zehazteko orduan, udal administrazioak eragingarritasuna eta eraginkortasuna hartuko ditu kontuan dauzkan baliabideak aprobetxatzeko. Horrela bada, **kalitate oneko zerbitzu publikoa eskainiko du** eta zerbitzua eskatzen duen herritar-kopururik handienera irits dadin saiatuko da. Horrek ez dakar berekin administrazio-kontratazioari edo zerbitzu publikoen kudeaketari uko egitea. Gainera, zerbitzu horiek hiriaren eskaeraren eta beharren arabera moldatuko dira.

Horiek horrela, Udalak zerbitzu publikoen kudeaketaren kontratazioa murrizteko konpromisoa hartzen du Horrez gain, kontratatutako enpresetako lana baldintza duinetan egin beharko da, eta gutxienez aplikagarriak diren legezko xedapenak eta dagokien sektoreko hitzarmena beteko dira, bereziki, pertsonalaren subrogazioari dagokionez.

**2. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA:** Langileak prestakuntza-planean jasotako ikastaroetara, euren lanpostuekin zerikusia badute**, lan-ordutegian** joan ahal izateko formulak bilatzeko konpromisoa hartzen da; izan ere, benetako lan-jardunalditzat jotzen dira; eta hori, batez ere, udaltzainak birziklatzeko ikastaroei dagokienez.

**3. TXANDA ETA ORDEZKAPEN KONTRATUA:** Gizarte Segurantzako araubide

**TERCERO.- ASPECTOS GENERALES**

**1.- MANTENIMIENTO Y MEJORA DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS:** El Ayuntamiento de Bilbao manifiesta su voluntad y compromiso en el mantenimiento y mejora de los Servicios Públicos, atendiendo en el modo de determinar la forma de prestación de los mismos, de atender a la eficacia y eficiencia en el aprovechamiento de los recursos de que disponen con la finalidad de prestar el servicio público en condiciones de calidad y la máxima extensión posible al conjunto de la ciudadanía que lo demande, sin que ello signifique la renuncia a la contratación administrativa tanto de servicios como de gestión de servicios públicos, y adaptando dichos servicios a las demandas **y** necesidades de la ciudad.

En este sentido se compromete a limitar la contratación de gestión de servicios públicos y a que el trabajo en las empresas contratadas se desempeñe en condiciones dignas, garantizándose el cumplimiento de las disposiciones legales que les sean de aplicación así como el convenio del sector del que formen parte, especialmente en cuanto a la subrogación del personal se refiere.

**2.- FORMACIÓN CONTINUA:** Compromiso de buscar fórmulas que permitan la asistencia del personal a los Cursos incluidos dentro del Plan de Formación que tengan relación con su puesto de trabajo **en horario laboral,** dado que tienen la consideración de jornada de trabajo efectiva, especialmente los cursos de reciclaje en Policía Municipal.

**3.- CONTRATO DE RELEVO Y SUSTITUCIÓN:** Se impulsará la posibilidad de instrumentar

orokorrera atxikitako funtzionarioek ere txanda zein ordezkapen kontratuez gozatzeko **legez aukera izan dezaten behar diren neurriak** hartzea sustatuko da. Horrez gain, lan-itunpeko pertsonala gaztetzeko egun dauden gainerako neurriak ere sustatuko dira.

**4.- BIGARREN JARDUERA:** 2004ko azaroaren 12an Langileen Juntarekin negoziatutako **"OSASUN ARRAZOIAK DIRELA ETA, LANGILE KOPURUA EGOKITZEKO ENPLEGU PLANA"** izeneko proposamena, hain zuzen, osasun-arrazoiak direla eta, langile-kopuruak aztertzeko dena Gobernu Batzordearen Erabakiz onartzea.

**5, -LANEKO OSASUNA:** Laneko istripuak edota lanbide-gaixotasunak sor ditzaketen **arrisku-egoera guztiak erauzteko** beharrezko neurriak hartzea erabaki da. Horretarako indarrean dauden legeek eta arauek ematen dituzten agindu guztiak beteko dira eta beharrezko konponbide teknikoak hartuko, sortu berria den Erakunde Arteko Prebentziorako Zerbitzuaren bidez.

**6.- BARNE SUSTAPENA:** Sailkapen-talde eta lanbide-kategorietarako (menpekoak, suhiltzaileak, udaltzainak, administrari-laguntzaileak, administrariak eta abar) **administrazio-karrera sustatzeko** konpromisoa, baita B taldeko Kudeaketa Taldeetako plazak sortu beharrari buruzko azterlan bat egiteko konpromisoa ere.

Zehatzago **Udaltzaingoan** hiru urteko iraupena izango duen **BARNE SUSTAPENEKO PLAN** bat abian jartzea erabaki da. Udaltzain lehenen 30 plaza, ofizialordeen 8 eta ofizialen 23 plaza sortuta. Horretarako, dagozkien

**medidas para que legalmente sea posible** aplicar también al personal funcionario adscrito al Régimen General de la Seguridad Social los contratos de sustitución así como los contratos de relevo y/o cualesquiera otras medidas tendentes al rejuvenecimiento de plantilla que actualmente existen para el personal laboral.

**4.- SEGUNDA ACTIVIDAD:** Aprobación por Acuerdo de la Junta de Gobierno de la propuesta de reasignación de efectivos por razones de salud que se negoció con la Junta de Personal el 12 de noviembre del 2004, con la denominación de: **"PLAN DE EMPLEO PARA LA REASIGNACIÓN DE EFECTIVOS POR RAZONES DE SALUD".**

**5.- SALUD LABORAL:** Se acuerda la adopción de las medidas necesarias para la **erradicación de toda situación de riesgo** susceptible de generar accidente de trabajo y/o enfermedades profesionales, cumpliendo todos los preceptos legales y reglamentarios vigentes y adoptando las soluciones técnicas necesarias, a través del recientemente implantado Servicio Mancomunado de Prevención.

**6.- PROMOCIÓN INTERNA:** Compromiso de **potenciar la carrera administrativa** en los diferentes grupos de clasificación y categorías profesionales (subalterno, bomberos, policía, auxiliar admvo., administrativos, etc.), así como de realizar un estudio acerca de la necesidad de creación de plazas de los Cuerpos de Gestión del Grupo Retributivo B.

Concretamente en la **Policía Municipal** se acuerda la implantación de un **PLAN DE PROMOCIÓN INTERNA** a tres años mediante la creación de un total de 30 plazas de Agente 1ª, 8 de Suboficial, 23 de Oficial, mediante la

ofizialorde plazak eta komisariorde plazak aldatuko lirateke, honelaxe:

| PLAZA | TALDEA | EGUN | PROPOSAMENA |
|---|---|---|---|
| KOMISARIORD. | B | 1 | + 3 |
| OFIZIALAK | C | -- | +23 |
| OFIZIALORD. | C | 35 | + 8 (23 KENTZEKO) |
| UDALTZAIN 1. | D | 69 | + 30 |

**Suhiltzaileei** dagokienez, oraingo plantilari eutsi egiten zaio. Hutsik honako plaza hauek aurreikusten dira: suhiltzaileen ofizialordeen 4 plaza, suhiltzaileen sarjentuen 6 plaza eta suhiltzaileen kaboen 10 plaza. Horiek **barne-sustapenaz** beteko lirateke.

**7.- LANERATZEKO KONTRATUA:** Egin daitezen laneratze-kontratuetako lan-baldintzak hobetzeko konpromisoa, hauen erregulazioa arautegi berezi batean egiten dela eta INEMekin eta beste administrazio batzuekin sinatutako hitzarmenen ondoriozkoak direla kontuan hartuta. Era berean konpromisoa hartzen da figura honetaz izaera orokorraz ez baliatzeko.

**8. ALDI BATERAKO BITARTEKO PERTSONALA:** Bitartekoentzako kontratuak direla eta, ezegonkortasunaren **% 7ko portzentajea ez gainditzeko** konpromisoa. Gaixotasunagatiko bajak betetzeko edo aldi batean lan gehiago egoteagatik hartutako aldi baterako bitarteko funtzionarioei dagokie aurrekoa.

transformación de las correspondientes plazas de Suboficial, y 4 de Subcomisario, de la siguiente forma:

| PLAZA | GRUPO | PL.ACTUAL | PROPUESTA |
|---|---|---|---|
| SUBCOMISARIO | B | 1 | + 3 |
| OFICIAL | C | -- | + 23 |
| SUB-OFICIAL | C | 35 | + 8 (A AMORTIZAR 23) |
| AGENTE 1º | D | 69 | + 30 |

Asimismo, en cuanto a **Bomberos** se mantiene la actual Plantilla que contempla las siguientes plazas vacantes: 4 de Suboficial Bomberos, 6 de Sargento Bomberos y 10 de Cabo Bomberos para su provisión mediante **Promoción Interna**.

**7.- CONTRATOS DE INSERCIÓN:** Compromiso de mejora de las condiciones laborales de los contratos de inserción que se realicen, teniendo en cuenta que su regulación se establece en una normativa específica y que se derivan de Convenios firmados tanto con el INEM, como con otras administraciones, comprometiéndose a no acudir a esta figura con carácter general.

**8.- PERSONAL INTERINO TEMPORAL**: Compromiso de **no superar el porcentaje del 7%** de inestabilidad relativo al porcentaje de contratos interinos, entendiendo como tales los funcionarios interinos temporales que están contratados para cubrir bajas por enfermedad o incremento de tareas coyuntural.

**LAUGARRENA.- 2004 ETA HURRENGO URTEETARAKO LANPOSTUEN BALORAZIOA.**

**1.** Egindako azken bileran Lanpostuen Balorazioko Batzorde Teknikoak hartutako erabakiak azterturik, udal gobernuaren ordezkaritzak onartzen du, sindikatuen ordezkarien eskariz, balorazio hori lehenbailehen **Gobernu Batzordeak onartzeko eta 2004ko urtarrilaren 1eko ondorioekin aplikatua izateko** konpromisoa, baita dagokien funtzionarioei sortutako aldeak lehenbailehen ordaintzeko konpromisoa ere.

**2.** Lanpostuen balorazioa egiteko metodoa eta prozedura eguneratzeko, batzordearen lanak aldi batez eteteari teknikoki komenigarri iritzita, egindako azken bileran Lanpostuen Balorazioko Batzorde Teknikoak hartutako erabakiak azterturik, sindikatuen ordezkariek onartzen dute, udal gobernuaren ordezkaritzaren eskariz, **aipatutako batzordean balorazioa aldi batez etetea**, baita balorazioa egiteko metodo eta prozedura berriak onartu artean, Udaleko Gizarte Baliabideen zerbitzu teknikoak izan daitezela behin-behineko balorazioak egin ditzatenak. Hala ere, beren beregiko baldintza bakarra dago: onartu aurretik, beharrezkoa izatea sindikatuen ordezkarien txostena, nahiz eta txostena loteslea ez izan.

**3.-** Akordio hau sinatzen duten sindikatuek Lanpostuen Balorazioko Batzorde Teknikoak lanpostuen balorazioa egiteko metodoa eta prozedura eguneratzeko prozesuan laguntzeko konpromisoa onartzen dute.

**CUARTO.- VALORACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO PARA EL AÑO 2004 Y SIGUIENTES**

**1.-** Vistos los acuerdos adoptados por el Comité Técnico de Valoración de los Puestos de Trabajo en su última reunión, la representación del gobierno municipal acepta, a instancias de los representantes sindicales, el compromiso de que dicha **valoración sea aprobada sin demora por la Junta de Gobierno y aplicada a las retribuciones con efectos del primero de enero de 2004**, y abonadas las diferencias correspondientes a los funcionarios afectados a la mayor brevedad posible.

**2.-** Vistos los acuerdos adoptados por el Comité Técnico de Valoración de los Puestos de Trabajo en su última reunión, en relación a la conveniencia técnica de interrumpir temporalmente los trabajos de valoración del citado Comité con el fin de proceder a la actualización del método y procedimiento de valoración de los puestos de trabajo, los representantes sindicales aceptan, a instancias de la representación del gobierno municipal, esta **interrupción temporal de las valoraciones a través del Comité** mencionado, así como la propuesta de que, **hasta tanto no sea aprobado el nuevo procedimiento y método de valoración**, sean los servicios técnicos de recursos humanos municipales los que procedan a valoraciones provisionales, con la condición expresa de que antes de su aprobación se sometan a informe no vinculante de los representantes sindicales.

**3.-** Los sindicatos firmantes aceptan también el compromiso de colaborar en el proceso de actualización del método y procedimiento de valoración de los puestos de trabajo que emprenderá el Comité Técnico de Valoración de los Puestos de Trabajo.

## BOST.- 2005 ETA 2006 URTEETARAKO ALDERDI ZEHATZAK.

**1.- ORDAINSARIEN IGOERA: 2005 eta 2006an** Bilboko Udaleko pertsonalaren ordainsariek izaera orokorraz legez horretarako ezar dadin ehunekoko igoera izango dute. Hala badagokio, udal funtzionarioei aparteko pagetan aplikagarriak diren aurrekontuei buruzko legeetan izan daitezen aldaketak aplikatuko zaizkie eta fondo gehigarriak sortuko dira. Fondo horiek aplikagarriak diren aurrekontuei buruzko legeetan onartutako zenbatekoak izango dituzte; zenbatekoa, gehienez, Bilboko Udaleko Negoziazio Mahaian lor daitezen akordioen eremuaren barruan, lanpostuen edukiak direla eta egin beharreko ordainsarien egokitzapenetarako izanik, izaera orokorraz erosteko ahalmenari eusteko aplikatutako ordainsarien igoera baino % 1 handiagoa izango da.

**2.- KONTSUMORAKO MAILEGUAK**: Egungo zenbatekoek eta berauek interesik gabe **itzultzeko epea % 40ko igoera edo luzapena** izango dute. Hala ere, gehienezko epe horiek agortu barik ere itzuli ahalko dira maileguak.

| | EGUNGO ERREGUL. 97-1-17 | 2005ERAKO PROPOSAMENA |
|---|---|---|
| **Zenbatekoak** | 1.803,04 (300.000) | **2.500** (415.965) |
| | 3.606,07 (600.000) | **5.000** (831.930) |
| | 5.409,11 (900.000) | **7.500** (1.247.895) |
| **Epeak** | 12 hilabete | **12** hilabete |
| | 18 hilabete | **20** hilabete |
| | 26 hilabete | **30** hilabete |

## QUINTO.- ASPECTOS CONCRETOS PARA LOS AÑOS 2005 y 2006.

**1.- INCREMENTO RETRIBUTIVO:** Para los **AÑOS 2005 Y 2006** el conjunto de las retribuciones del personal del Ayuntamiento de Bilbao se incrementarán con carácter general en el porcentaje legal que se establezca; en su caso, se aplicarán también a los funcionarios municipales las modificaciones que se produzcan en las leyes de presupuestos aplicables en materia de pagas extraordinarias; y se constituirán fondos adicionales de cuantía equiparable a los que se aprueben en las leyes de presupuestos aplicables, por un importe que no podrá exceder del 1% sobre el incremento retributivo aplicado con carácter general que garantice el mantenimiento del poder adquisitivo, destinado a las adecuaciones retributivas que resulten imprescindibles por el contenido de los puestos de trabajo, en el marco de los acuerdos que pudieran alcanzarse en la Mesa de Negociación del Ayuntamiento de Bilbao.

**2.- PRÉSTAMOS DE CONSUMO: Incremento del 40%** de las cuantías actuales**, así como del plazo de reintegro** del préstamo sin interés alguno, y que podrán devueltos en plazo inferior al señalado como máximo.

| | REGULACIÓN ACTUAL DTO. 17-1-97 | PROPUESTA 2005 |
|---|---|---|
| **Cuantías** | 1.803,04 (300.000) | **2.500** (415.965) |
| | **3.**606,07 (600.000) | **5.000** (831.930) |
| | 5.409,11 (900.000) | **7.500** (1.247.895) |
| **Plazos** | 12 mensualidades | **12** mensualidades |
| | 18 mensualidades | **20** mensualidades |
| | 26 mensualidades | **30** mensualidades |

**3.- LAGUNTZA EKONOMIKOAK:** 2002ko azaroaren 18ko Dekretuan jasota dagoen eta egun indarrean dagoen erregulazioa berrikustea erabaki da. Zenbatekoak **% 10** gehitu ziren eta **tratamendu berriak** jaso ziren, hala nola:

* **Bertigoa errehabilitatzeko tratamendua:** tratamenduaren kostuaren % 25eko diru-laguntza emango da, gehienez ere 425 €.

* **Talka-uhinak:** tratamenduaren kostuaren % 25eko diru-laguntza emango da, gehienez ere 150 €.

* **Excimer Lasserraren bidezko kirurgia errefraktorioa:** tratamenduaren kostuaren % 10eko diru-laguntza emango da, gehienez ere 300 €, begi biengatik.

* **IMQ barruan sartzen ez diren edo handik kanpo egiten diren beste tratamendu mediko batzuk:** aztertu ondoren Gizarte segurantzan eta Adelsas, Sanitas eta abarren polizen barruan sartzen ez direnak eta ikuspegi zientifikotik euren eraginkortasuna frogatuta dagoenean: sortutako **gastuen % 50eko** portzentajearen laguntza emango da.

**4.- MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA:** Gainera **2005ean OZONOTERAPIA** tratamenduak ere sartzen dira. Hernia diskala tratatzeko teknika berria da eta kontuan izan behar dugu problema osteomuskularren eremuan gehienetan izaten den patologia dela. Gehienez, 300 €., tratamenduaren kostuaren % 25eko diru-laguntza. Gainera, zenbait kolektibotan (odontologoak, ortopediak, excimer lasserra, optikak eta abar) **Bilboko Udalekoentzat** prezio merkeagoak lortzeko ahaleginak egingo dira. Horiek ere udal funtzionarioentzako beste zerbitzu bat da.

**5.- ZERBITZUAN 20 URTE EGINDA EGUN LIBRE BAT GEHIAGO:** **Astegun bat gehiago**

**3.- AYUDAS ECONÓMICAS:** Se acuerda revisar la vigente regulación contenida en el Decreto de 18 de noviembre de 2002, que incrementó las cantidades en un **10%** y se incluyen **nuevos tratamientos** como:

* **Tratamiento Rehabilitador del Vert.igo:** máximo de 425 €, resultante de la aplicación de un 25% del coste del tratamiento.

* **Ondas de choque:** máximo de 150 €, resultante de la aplicación de un 25% del coste del tratamiento.

* **Cirugía Refractaria por Lasser Excimer:** máximo de 300 € por ambos ojos, resultante de la aplicación de un 10% del tratamiento.

* **Otros Tratamientos Médicos** no incluidos o efectuados fuera del I.M.Q., que según su estudio no se encuentran incluidos en la Seguridad Social ni en Pólizas de Entidades como Adeslas, Sanitas, etc. y que esté demostrada su utilidad desde el punto de vista científico en una cuantía del **50% de su coste.**

**4.- MEDICINA ALTERNATIVA:** Además se acuerda la **inclusión para el año 2005** de tratamientos de OZONOTERAPIA, nueva técnica de tratamiento de la Hernia de Disco, una de las patologías más prevalentes en el ámbito osteomuscular, por un máximo de 300 €, resultante de la aplicación de un 25% del coste del tratamiento, y se insistirá en la política de conseguir ofertas en diversos colectivos (odontólogos, ortopedias, Lasser Excimer, Ópticas, etc.) con **precios especiales para el Ayuntamiento de Bilbao,** que también deben ser considerados como un servicio más en favor de los funcionarios municipales.

**5.- DÍA LIBRE POR 20 AÑOS DE SERVICIO:** Concesión de un **día hábil adicional de licencia**

izango luke **ordaindutako lizentziaz** zerbitzuan 20 urte eman dituenak. 20 urteko antzinatasunetik aurrera, opor-egunez gain, egun bat gehiago zerbitzuan egindako bost urteko epeengatik urtean. Hori zerbitzu-urteak egiten dituen urtearen hurrengotik aurrera. Zerbitzuan 40 urte eginda zerbitzu-urteen sari moduan ematen zen erlojua emateari utziko zaio horren ordez.

**6.-** **EZKONTZA EDO IZATEZKO BIKOTEA ERATZEAGATIKO LIZENTZIA:** 20 egun naturaleko lizentzia izatezko bikotea osatzen dutenentzat ere izango da. Lizentzia eman ondoren egiaztatu beharko da **izatezko bikoteen erregistro publikoan inskripzioa** eginda. Inskripzioa lizentziako egunetako batean egin beharko da.

**SEIGARRENA.-** **ARAUTEGIA ETA 2005 ETA 2006 URTEETARAKO BESTE HOBEKUNTZA BATZUK**.

Lan-baldintzak, eskubideak eta betebeharrak eta ordainsariei dagozkien baldintzak egun erregulatzen dituen arautegia eta akordio honetan jasotakoak, legez eskuratutako eskubideen kalterik gabe, egokituko dira akordioaren indarraldian legez aplikagarri izanik onartutako arautegi berrietara, baita, hala badagokio, onar daitezen edo aplikagarriak izan daitezen akordio-marko edo antzeko tresnetara.

**ZAZPIGARRENA.-** **BETETZEKO BERMEA ETA BAKE SOZIALA**

Akordio honen bidez Udalaren enplegatu publikoen lan-baldintzak modu nabarmenean hobetuko dira eta horrek erakundeari ahalegin ekonomiko handia egitea eskatzen dio, baita funtzio eta antolaketa-mailako egokitzapena

**retribuida** al cumplir 20 años de servicio, además de sus respectivos días de vacaciones anuales, añadiéndose un día más por cada 5 años de servicio en función de la antigüedad reconocida a partir de los 20, y que se hará efectivo a partir del año siguiente al cumplimiento de los años de servicio, suprimiéndose el premio por servicios prestados consistente en la entrega de un reloj por 40 años de servicio.

**6.-** **LICENCIA POR MATRIMONIO O CONSTITUCIÓN DE PAREJA DE HECHO:** Extensión de la licencia de veinte días naturales a la constitución de pareja de hecho, que deberá justificarse posteriormente mediante certificado de **inscripción en registro público de parejas de hecho** en una fecha incluida dentro de los días de disfrute de la licencia.

**SEXTO.-** **NORMATIVA REGULADORA Y APLICACIÓN DE OTRAS MEJORAS PARA LOS AÑOS 2005 y 2006.**

La actual normativa reguladora de las condiciones de trabajo, derechos y deberes y condiciones retributivas de los funcionarios municipales, y los propios términos del presente acuerdo de adaptarán, salvando los derechos legalmente adquiridos, y durante el plazo de vigencia del presente Acuerdo, a toda nueva normativa aprobada que resulte legalmente aplicable, así como, en su caso, a los acuerdos-marco o instrumentos análogos que puedan aprobarse y ser de aplicación.

**SÉPTIMO.-** **GARANTÍA DE CUMPLIMIENTO Y COMPROMISO DE PAZ SOCIAL**

El presente Acuerdo supone una mejora sustantiva de las condiciones de trabajo de los empleados públicos municipales que exige a la Institución un gran esfuerzo económico y una adaptación funcional y

ere, edukira egokitzeko, hain zuzen. Lortutako akordioaren izaera kontuan hartuta, alde biek konpromisoa hartzen dute honako hauek oso-osorik betetzeko:

**1.-** Erakundeak eta sindikatuek hartutako erabakiak betetzeko eta errespetatzeko konpromisoa adierazten dute, herritarrei ematen zaizkien zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko.

**2.-** Akordioaren indarraldian kontsulta edo negoziazio-gai izan ahalko dira, indarrean dauden lege-xedapenetan aurreikusitakoaren arabera eta horietan jasotako prozeduren arabera, enplegu-planen diseinua eta plan horiek prestatzea, Enplegu Publikoaren Eskaintza, barne-sustapenerako programak zehaztea, langileen trebakuntza edo prestakuntza eta hobekuntza, funtzionario publikoen sustapen profesionala eta laneko osasunaren inguruan hartu beharreko neurriak.

**3.-** Alde biek konpromisoa hartzen dute akordio honen indarraldian sor daitezkeen gorabeherak konpontzeko orduan beti araubide juridikoan ezarritakoarekin bat etorrita egun ezarrita dauden kontsulta eta elkarrizketaren bideak eta akordioa interpretatzeko orduan sor daitezkeen ezadostasunak konpontzeko elkarrizketarako giro irekia edukitzeko; eta hori ezarritako ordezkaritza-organoetan fede ona izatearen printzipioarekin bat etorrita. Era berean, alde biek sinatutako akordioak zein neurritan bete diren udal enplegatu publikoei modu egokian azaltzeko eta horretaz informatzeko konpromisoa hartzen dute.

**4.-** Alde biek 2006ko azken hiruhilekoan 2007rako akordio berri baterako negoziazioak hasteko konpromisoa hartzen dute.

organizativa al contenido del mismo. Dada esta naturaleza del acuerdo alcanzado las partes se comprometen a respetar y cumplir íntegramente los siguientes extremos:

**1.-** La Institución y los Sindicatos expresan su compromiso de respetar y cumplir los acuerdos adoptados con el objetivo de mejorar la calidad en la prestación de los servicios públicos que se prestan a la ciudadanía.

**2.-** Podrán ser objeto de consulta o negociación durante la vigencia del Acuerdo, en los términos y con los procedimientos previstos en las disposiciones legales vigentes, la preparación y diseño de los planes de empleo y la Oferta de Empleo Público, la determinación de los programas para la promoción interna, formación y perfeccionamiento, la promoción profesional de los funcionarios públicos y las medidas a adoptar sobre salud laboral.

**3.-** Ambas partes se comprometen a utilizar en todo momento y exclusivamente para solventar las cuestiones incidentales que puedan surgir durante la vigencia del presente Acuerdo los cauces de consulta y diálogo actualmente establecidos conforme al ordena-miento jurídico, y a mantener un clima de diálogo fluido y de cooperación sincera para resolver las discrepancias que pudieran surgir sobre la Inter.-pretación de este Acuerdo, bajo el principio de la buena fe, en los órganos de representación ya establecidos. Asimismo, ambas partes se comprometen a informar fielmente a los empleados públicos municipales sobre el grado de consecución de los acuerdos suscritos.

**4.-** Ambas partes se comprometen a iniciar en el último trimestre del 2006 la negociación de un nuevo Acuerdo para el año 2007.

Bilbao, a 20 de diciembre de 2004.

**EL CONCEJAL DELEGADO**
**DE RECURSOS HUMANOS,**

| **E.L.A.** | **S.V.P.** | **L.A.B.** | **U.G.T.** | **CC.OO.** |
|---|---|---|---|---|